

2024-06-28 / 822 ZENBAKIA / 20. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



Uda beteko giroan amaitu dira Sanjuanak

Euripean eta lainotan hasi, eta eguzkipean amaitu dira jaiak Andoainen / 2-9



Saretzen:
Argi eta Lur,
txakurren izen
ohikoenak Andoainen
eta Urnietan / 12

Sorginen eskutik
iritsi zen akelarrea
Urnietara, herriko
zenbait eragilerekin
elkarlanean / 2

Vingegaard eta
Pogacar Frantziako
Tourraren irteeran
dira. Kontakizuna,
Aiurri.eus gunean / 13



AURREKONTU IREKIEN PARTE-HARTZE PROZESUA

**Egin zure ekarpena
ekainaren 30a arte.**

Udalaren webgunea, APP-a edo
formularioa herriko puntu
desberdinetan kokaturiko
buzoi eta kutxetan utziz.





Akelarrearen egina zuten, sua piztu aurretik. AIURRI

Txararak sutara bota zituzten

Igandea izanda ere, hamaika herritar gerturatu zen Plazido Muxika plazara, San Juan sua ikusteko. Webgunean, eskuragarri dago ekitaldi osoaren bideo-laburpena, argazki-galeriarekin batera

Erredakzioa URNIETA

Ondo baino hobeto hasi dute uda-sasoia Urnietan. Izan ere, harrera beroa eduki zuen urteko gaurik magikoenak. Eguna euritan igarota ere, ez zen oztopo izan, afafolean, Plazido Muxikara hurbildu eta urteroko San Juan suaz gozatzeko.

Sorginak izan ziren gaueko protagonista nagusi, antzerkia, musika eta dantza uztartuta ikusmira handia sortu baitzuen herritarren artean akelarreak, gaueko 22:00tan hasita. Ezinbestekoa izan zen, era berean, Habitantes de Innsmouth elkarteeko kideen zein Donostiako Sala de armas Ignota eragilearen lana, inkisizioaren garaian kokatutako ikuskizuna ontzeko. Ikuslegoaren txalo-zaparradarekin amaitu zen ekitaldia. Ondoren, Akerraren eskutik piztu zuten sua, Danbolin txistulari



Akerra, sorginez inguratuta. AIURRI

bandaren melodiak lagunduta. Oholtzara igotzeko tartea hartu zuten ere Kantazauneko kideek. Hala, euskal kantuz bete zuten

plaza, Zetak taldearen "Itzulera" edota Xabi Solanoren "Erre zentituzten" bezalako abesti eza-gunekin.

Ospakizuna, Sorginen lanari esker



Jendetza gerturatu ohi da urtero. AIURRI



Euskal kantak abestu zituzten akelarreaken aurretik. AIURRI



Kantazaunek eman zion hasiera hitzorduari. AIURRI



Urnietako
udala



Eula sagardotegia, "Ongi-etorri baserrira" ekimeneko artxiboko irudian. AIURRI

Otazura, Adarrazpira eta Eulara bisitaldi-gidatuak

"Ongi-etorri baserrira" ekimenaren bederatzigarren edizioa Urnietara iritsiko da uztailaren 5ean

Erredakzioa URNIETA

ENBA sindikatuak nekazal us-tiapenak kontsumitzailerak gerturatzeko edizio berria antolatu du. Argia da xedea: "gure jakien jatorria berraurkitzeko eta beren ingurune naturalean, mahaiean dastatzen ditugun elikagaiak ekoizten dituzten baserritarrek ezagutzeko aukera ezin hobea da. Uztailaren 5ean eta 6an Gipuzkoa eta Bizkaiko baserritarrek beren baserrietako atek zabalduko dituzte ukuiluak, baratzak eta landaguneak ezagutzera emateko". Ekimenak arrakasta handia du eta gonbidapenak azkar batean agortzen dira.

Hori gertatu da Eularen eta Adarrazpiren kasuan. Eulan sagastiak eta sagardotegia ezagutzeko aukera eskainiko zaio bisitariari. Adarrazpin, berriz, ardiak ikusi eta gazta eta mamia nola egiten duten ikusteko parada izango da. Otazun shitake perretxikoak ekoizten dituzte, eta hara gerturatu nahi duenak ongiatorribaserrira.com webgunean klik egin behar du. Bistaldia doakoa da eta izena emateko epea uztailaren 3an amaituko da (egun hori barne).

Familian edo lagunartean egiten diren bisitaldiak aproposak dira landagunea balioan jartzeko.



AIURRI

Kartela erabakitzeko lehiaketa

Sanmieletako irudia aurkezteko lehiaketa martxan dago, ekainaren 28ra bitarte. Jatorrizko lana Bertan bulegoan aurkeztuko behar da. Kartelak "Urnietara, 2024ko Sanmieletak" goiburua eramango du, halaberrez. Saria 500 eurokoa da. Irabazlea Jai Batzordeak hautatuko du.

Igandea, proposamenak aurkezteko azken eguna

Urtero lez, aurrekontuko 150.000 euro herritarren esku utzi ditu Udalak, parte-harte prozesua medio

Erredakzioa URNIETA

Aurtengo ekinaldian urnietarrek proposamenak luzatu eta eurek izango dute azken hitza. Hilaren 30era bitarte dago zabalik "Parte Hartuz" prozesua. Urnietako Udalak, urtero bezala, udal aurrekontuko 150.000 euro herritarren esku uzteko asmoa du. Baina, aurtengoan, Segurako alkateak berrikuntza bat iragarri du: "Proposamenak egiteaz gain, urnietarrak izango dira gauzatuko diren proiektuak zuzenean aukeratzeko dituztenak".

Ekainaren 30era bitarte –datorren igandea– izango dute 16 urtetik gorako urnietarrek aukera-proposamenak egiteko. Bideak ohikoak dira.

Xehetasunak

Aurreko edizioetan, bi fase ziren. Aurrerantzean, hirugarrena erantsiko da:

1. Herritarrek proposamenak aurkeztuko dituzte.
2. Udal teknikariek proposamenak aztertu eta hamar aukeratu dituzte.
3. Herritarrek hamar proposamen horien artean egokiena zaionaren alde bozkatuko du.

Proposamenaren ezaugarriak

- Udal-eskumenekoak behar dute izan.
- Bideragarriak izan behar dute.
- Interes orokorra hobetsiko da.
- Auzoen arteko oreka bermatuko da.



Gabirondo urnietarra, igandean Amasan. AIURRI

Gipuzkoako txapelak jantzi zuen Julen Gabirondok

Erakustaldi berria eskaini zuen Jokin Etxeberria, Mikel Lizartza eta Iban Pardo atzean utzita

Erredakzioa URNIETA

Julen Gabirondok erakustaldi berria eman zuen aurreko igandean, Amasako Arratzainen egin zen Gipuzkoako Segar Sail Txapelketan. Eta astebete lehenago ere irabazle izan zen Azkartasuneko segar-txapelketa. Hura Zizurkilen jokatu zen.

SAILKAPENA

SEGA SAIL TXAPELKETA

1	Julen Gabirondo	34:58
2	Jokin Etxeberria	35:17
3	Mikel Lizartza	39:23
4	Iban Pardo	46:41

Amasako probako irudiak eta bideoa, Aiurri.eus gunean.



Euripean jokatu zen Gipuzkoako txapelketa. AIURRI



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



GORA ETA BEHERA



Feeling Good. AIURRI



Natural Project. AIURRI



Black Smoke. AIURRI



Dukkha. AIURRI

GORA ETA BEHERA



Dantzariak, Kontzejupean. AIURRI

Dantzariak, lore eta guzti



Aurten, loreak soinean zituztela irten ziren plazara. Arratsaldean, Otietan aritu ziren loreak biltzen. Detalle txikia, nabarmena, jaia eradaltuz doan seinale.



Lore-bilketa, egun berean. AIURRI

Andoaingo musika-taldeak Nafarroa plazako oholtzan aritu ziren



Aurtengo jai-egitarauan Andoaingo musika taldeei Nafarroa plazako oholta gainean aritzeko aukera eskaini zaie, modu horretan, musika-talde handien emanaldiak irekiz.

Ostiralean Feeling Good eta Natural Project aritu ziren, Niña Coyote eta Chico Tornadoren aurretik. Larunbatean, Gatiburen aurretik aritu ziren Black Smoke eta Dukkha

taldeak. Rock proposamen horiez gain, ezin ahaztu Olgetan taldeak egindako zuen emanaldia. Goikoplazan aritu ziren astelehenean, jende askoren aurrean.

Suak garaitu zuen ura

Udako solstizioaren ospakizunean sua ezinbesteko elementua da. Aurten, eguraldiaren eraginez, urak gaindiezina zirudien. Antolatzaileek, ordea, Goikoplazako egitura plastikoz babestu zuten eta, horri eskerrak, sua garaitu zitzaion urari



Sugarren indarra nahikoa zen Goikoplazako lur bustia irudikatzen. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Euritan eta ilun samar hasitakoa eguzki-galgatan amaitu zen. Eguraldiari dagokionez, egunak aurrera joan ahala, aldaketa erabatekoa ikusi da aurtengo jaietan. San Juan bezperan, esaterako, euri-langarra eta lainoa nagusitu ziren. Eta, aldiz, uda beteko giroan igaro zen San Juan bigarrena, herriko jaietako amaiera ematen ziona. Horregatik, akaso, iluntze aldera, jendetza zebilen Goikoplazan eta inguruetan. Puro Relajo taldearena ere bada meritua, ehunka eta ehunka lagun hurbiltzeko gaitasuna izan zutelako. Mexiko aldeko errepertorio ezagunak irismen handia du, inguruotan. Jaietan ikusle gehien elkartu duena izan da Puro Relajoren emanaldia. Gaua gainean zela amaitu zen, eta haietako askok eta askok "CavalTHEOS" su-festaraino luzatu zuten egonaldia kalean. Juanita Alkain plazatzon abiatu zen Kataluniatik etorritako Scura pirotekniazko kalejira, eta Plaza Morean geldialdia egin ondoren, Goikoplazan eman zioten amaiera. Plazaren inguruetan eta Urigain aldera begira jarrita, ikusle goa nonahi pilatu zen. Bukaera borobila eman zieten jaietako astearte gauean.

Zapore on horrekin amaitu ziren jaiak. Izango da jaien balorazioa egiteko tartea eta, bertan, gogoan iltzatuta gertatu da azken jai-egunean pila-tutako jendetza.

Aurretik, dozenaka ekitaldi izan da bost egunez. Gehien-gehienak burutu dira, salbuespenak salbuespen. Bertan behe-geratu zen, esaterako, Alkaterearen eta udalbatzaren Soka Dantza. Zorua labainkorra zegoen eta, euriaren eraginez. Arriskua

saihesteko hartutako erabakia izan zen. Tokiz aldatu ziren hainbat ekitaldi, hain zuzen, euriagatik. Horien artean, Mugaz taldearen emanaldia eta txuleta-jatea. Euriak, gainera, herriarren aldarrean eragin zuzena du. San Juan bezpera, ia egun osoan, babesean egotea zen aukera bakarra. Parte-hartzean eragin zuzena du horrek.

Badira, halere, eguraldi txarrari aurre egin eta animoz beterik ekiten diotenak. Burura datozkigu Kros mistoko korrikalariak eta Gipuzkoako Itzuliko txirrindulariak. Lasterka, bost kilometroko ibilbidean, euriak agerpena egin zuen, baina hori ez zen kokiltzeko arrazoi izan Zumeatarra kirol elkartearen gaztetxoentzat. Haiei esker, lasterketak dizdira berezia egin zuen. Une gorena Garazi eta Ane gaztetxoak helmuga iristean bizi izan zen. Anek txilinbuelta eginez zeharkatu zuen helmuga, bertan zirenen harridurarako. Helburua bete izanaren poza adierazteko hamaika aukera dago: txilinbuelta egitea horietako bat da. Txirrindulariek ere meritua handia izan zuten, proba osoa giro lanbrotzuan eta bustian egin zutelako.

Tradiziozko ekitaldiak dira Sanjuanetako egitarauaren oinarrietakoak. Txupinazoa, San Juan bezperako ekitaldia, dantza eta musika eskolen emanaldiak, Axeri-dantza, danborradak... ohiko gidoiari eutsi zioten hitzordu horietan guztietan.

Amaitu da ikasturtea, akabo Sanjuanak eta uda osoa aurretik da. Oporraldiari ekiteko aukera aproposa da. Andoain utzi eta kanpora joatea aukera bat da. Bada beste bat: auzoz auzo, jaietz gozatzea. Kaletxikin, hasita.



San Juan jaien jarraipen zabala webgunean

Ehunka argazki eta dozenaka bideo, klik bakarrera
ATAL BEREZIA INTERNET SAREAN

www.aiurri.eus



Hurria-Sahara elkarteak eman zion hasiera jaiari, pregoiarekin eta suziariarekin. AIURRI



Bertsolariak eta bertso-eskolako kide gazteak, saioa amaitu ostean. AIURRI



Lebiton konpartsak haur eta gaztetxoek arreta bereganatu zuten. AIURRI



Herri-kirol erakustaldiko partaideak, Iruntxiberri handiarekin batera. AIURRI



Txuleta-jana La Salle Berrozpe ikastetxeko jolastoki estalian egin zuten. Argazkian, auzoetako Jai Batzordeetako ordezkariak. AIURRI



Maizorriko eta Kantujirako partaideak, elkarrekin, larunbat eguerdian. AIURRI

UDAL GOBERNU TALDEAREN ADIERAZPENA

San Juan jaien lehen balorazioa

Bost egun biziren ostean, amaitu dira Sanjuanak; baita aho zapore gozoarekin amaitu ere! Eguraldia lagun, Puro Relajo talde nafarrak dantzan jarri zituen Goikoplazara bildutako hamarnaka lagunak, eta CavalTHEOsen kalejira piroteknikoak gazteenak goxatu zituen jaien azken orduetan. Baina horiek bezala,

jaietan izan dira bestelako ekitaldi jendetsuak ere: Mucedades edo Gatibu taldearen kontzertuak, zer esanik ez herriko musika taldeenak, Axeri Dantza, txuleta-jana, herri-kirolak, bertso saioa, 'Pelontxu'-ren moto-erakustaldia, Warhammer torneoa... aurtengoan egitarauan azken

aspaldian antolatzen diren ekimen eta ekintzak izan ditugu, baita hainbat hitzordu berri ere; guztien konbinazioak eragin du egitarau koloretsua, parte-hartzailea eta mamitsua izatea. Zalantzarik gabe, eguraldiak hainbat ekintza baldintzatu ditu, baina guztietan esan dezakegu andoaindarren parte-hartzea handia izan dela, eta horrek

eman dio ikusgarritasuna aurtengo jaiari. Gainera, nabarmendu beharra dago ez dela aparteko intzidentziarik izan jaietan, eta, oro har, lasaitasunean igaro direla. Puntu Moreak ez du intzidentziarik erregistratu, baina argi dugu bide honetan lanean jarraitu beharko dugula.

Sanjuanetako Jai Batzordeak egingo duen balorazio

sakonago baten esperoan, aurtengo jaiak modu positiboan baloratzen ditu udal gobernua. Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiogu jaiak posible egin dituzten guztiei: udal langileak, talde eragilea, herriko talde eta elkarteak, andoaindarrak...

Aurtengo jaiak emandakoa baloratzeko unea iritsi da orain, hurrengo urtekoak are eta hobeto izan daitezten.



80 urteko herrikideen bilkura eta bazkaria, ekainaren 25ean. Argazkian, udal ordezkariak lagun hartuta. AIURRI



Alkate txikiak eta Udal korporazioko ordezkariak, pleno aretoan. AIURRI



"CavalTHEOS" pirotekniazko ikuskizunarekin amaitu ziren jaiak, astearte gauean. AIURRI



Aita Larramendi ikastola, haur danborradan. AIURRI



Ondarreta Herri Eskola, haur danborradan. AIURRI



Olgetan musika-taldea, astelehen gauean. Tartean dira hainbat andoaindar. AIURRI



La Salle Berrozpe ikastetxea, haur danborradan. AIURRI





Jaietako kartel lehiaketa

Lehiaketara aurkeztu diren lanak Kontzejupean ikusgai izan dira egunotan.

Hona hemen sarituak:

17 urtetik gorakoak:

1. saria: "Sugarrak dantzan", Nerea Uralde Arrondo.

2. saria: "Kolare", Nerea Hernandez.

12-16 urte bitartekoak:

1. saria: "Sanjuanetan dantzan", Laida Rabadan.

2. saria: "Azen ontza", Nile Becerra.

Ikuslegoaren saria

17 urtetik gorakoak:

"Suzko bola", Ander Villar.

12-16 urte bitartekoak:

"Goazen festara", Maria Amores.



AIURRI



AIURRI

Munduko zaporeak

San Juan jaietan artisautza-produktuak bertatik bertara ikusi eta erosteko aukera izaten da. Astelehenean, goizez eta arratsaldean, hainbat postu ipini dituzte Goikoplazan. Inguruko jakiak ez ziren falta izan, ezta taloen postua ere.

Ongi Etorri Eskolara ekimenaren eskutik, berriz, Amerikako eta Afrikako jaki tipikoez gozatzeko aukera izan zen. Mundu zabalean ezagunak diren jakiak dastatzeko aukera izan zen, beraz. Azokan, jakiez gain, artisautza-produktu asko aurki zitezkeen.



AIURRI

Krosa, euripean

Lourdes Colomo eta Mikel Arrate izan ziren irabazleak, Koldo Velasco eta Maria Rengel txapelkun-ordeak eta Igor Esnaola eta Paula Sanchez, hirugarrenak. Lier eta Jon Zumeatarrako gazteak iritsi ziren hirugarren postuan, baina sailkapen orokorrean bikote mistoak aintzat hartu zituzten. Zumeatarrako gaztetxoaren parte-hartzea azpimarragarria izan zen.

Kontzejupeko finala

San Juan egunez jokatu ziren txapelketako finalak. Maila handiko pilota partidez gozatzeko aukera eduki zuten ikusleek. Aurten, Usandizaga-Olasagasti bikotea izan da garaile, Xabat Amilibia eta Jon Eskudero garaituta (22-16). 3. postuan Mikel Arberas eta Julen Loidi sailkatu ziren, Mikel Gaztañaga eta Aimar Beroz bikotea garaituta (22-21).



AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



Pili Jimenez izango da aurtengo Kandido. Donostiako Muchas Telas dendaren aurrean, Hondarribi kalean. AIURRI

"Kaletxikiko jaiak eskualdeko onenak dira"

PILI JIMENEZ KANDIDO KALETXIKIKO JAIETAN

Pili Jimenez Parra 14 urtez geroztik dabil murgilduta joskintzan. Azken urteetan, Muchas Telas oihalen dendaren ardura dauka, Donostian

Xabier Lasa ANDOAIN

Oihalen eta modaren munduan konta ezin ahala ekimenetan inplikatu izan da beti Jimenez; gogoratu besterik ez Andoain iraganean ospatu ziren moda desfileko 12 edizio gogoangarriak.

Jarrera ekintzaile horri heldu dio Jimenezek beste behin, bere bihotzeko dituen Kaletxikiko jaietan Kandido izatea proposatu diotenean.

Zerk animatu zaitu Kandido izatera?

Jai Batzordeko Imanol Etxeberriak egin zidan proposamena, eta bi aldiz pentsatu gabe erantzun nion baietz. Egia esan, jendaurreko kontu horrek ez nau batere beldurtzen; izateko-

tan ere, euskararekin daukat arazoa; ulertu, dena ulertzen diet bezeroei-eta, baina gero mintzatzerako orduan, komeriak! Ea nola moldatzen naizen pregoiarekin...

Kaletxikitarra sentitzen naiz erabat, eta esan beharrik ez dago ohore bat dela niretzat Kandido izatea aurtengo jaietan. Eskertuta nago Jai Batzordearekin, nirekin konfiantza eduki dutelako halako erantzukizun publiko hartzeko orduan.

Zer erakartzen zaitu Kandidoren figuratik?

Dotorea da bere estiloa, baina aldi berean, badu xarma, eta herrikoia da guztiz. Izan ere,

edozein izan liteke Kandido, baldintza bakarra izanik maitatzen Kaletxikiko auzoa, kaletxikitarrak eta bertako jaiak.

Emakume bakarra izan da orain arte Kandido, Ainara Lasa 2017an hain zuzen. Euskal jantziak azaldu zen orduan. Zuk zer asmo duzu?

Egokia izan zen aukera hura, eta dotore ateratu zen dena. Aurtengo ekitaldirako, Jai Batzordearekin batera aukerak zeintzuk diren aztertu ostean, azkenean erabaki dugu hasieratik diseinatu zuten Kandidoren errepresentazioa errespetatzea. Hortaz, Kandido gisa, galtza beltzekin, blusa zuriarekin, kaparekin, onddo-kapelarekin

eta makilarekin irtengo naiz plazara.

Erabat kaletxikitarra zarela diozu... Goitik behera, bai! Lau urte nituela, familiarekin batera Hernanitik Andoainera etorri nintzen bizitzera, Kaletxikira hain zuzen. Hiru ahizpak Berrozpeko mojekin ikasitakoak gara, eta iraganean auzoko kale-giro bizi-bizian hezi eta haziak gara.

Kaletxiki giza-komunitate kohesionatua zen hura, eta bertan, herrira aldapan igo gabe igaro zenezake eguna, lasai askoan igaro ere! Denetik geneukan eskura, okindegia, harategia, janari-denda, tabernak, autotailerra... Lagun-giroa ere jatorra zen, eta jolasean pasa zenezake goizetik gauera, etxera erretiratu gabe. Hitz batean, Bizimodua bertan egiteko moduko gizarte txiki bat zela Kaletxiki. Bizipen hori jaso duenak, nola ez du eramango bihotzean Kaletxiki?

Azken urteetan, Lasarte-Orian bizi naiz familiarekin, baina hura lotegia besterik ez da guretzat. Andoainera lotuta segitzen dugu.

Zer duzu gogoko Kaletxikiko jaietan?

Ekitaldi ugartan hartzen dut parte, danborradan batik bat. Izugarri maite dut ekitaldi hori. Oilo-ipurdia jartzen zait Berrozpeko kaperan danborra jotzerakoan! Giro bikaina izaten da danbor-joleon artean; gainera, azken urteetan, ugartzen joan da emakumeen parte-hartzea, eta, egun, gehiengoa garelako esango nuke.

Danborradaz gain, luzea da gogoko ditudan ekitaldien zerrenda: sagardo-lehiaketa, auzotarren bazkaria, bakarrizketak, gaueko dantzaldiak, DJ Nemuxek sortzen duen festa lotsagabea...

Erantzukizun handia da Kandidoren figura ordezkatzeko. Serio demonio ibili beharko duzu aurtun...

Etzazula pentsa! Egia aitortuko badizut, aurreko urteetan baino are sakonago bizituko ditut jaiak aurtun. Burua galtzeko edo balantzaka ibiltzeko beldurrik gabe, goiz etxera erretiratzeko estutasunik gabe, ibiliko naiz. Izan ere, ez dut alkoholik edaten, eta beraz, parranda kide perfektua izan ohi naiz edozein kuadrillarentzat.

Alde horretatik, zorte onekoa naiz, auzokoak baititut kuadrillako gehientsuenak, Txikituak izeneko talde osatzen dugu. Esan

beharrik ez nola den gure mar-txa jaietan: normalki lehenbiziko egunetik janzen dugu zapi berdea eta blusa gorri-beltza, eta ez ditugu kentzen igande ilunabarrera arte.

Zer esango zenioke Kaletxikiko ez den irakurleari, asteburuan festara batu dadin?

Egundoko lana egiten dute Jai Batzordekoek jende ezberdina asebetetzeko, eta badaukate meritua! Kaletxikiko jaiak ezagutzen dituenari ez zaio gauza askorik "saldu" behar, badakielako zein herrikoiak eta alaitsuak diren. Sekula etorri ez denari, berriz, proba dezala. Ziur nago ez dela damutuko.

Andoainen eta bailaran ospatzen diren festarik herrikoienak eta politenak dira niretzat; asko gara horrela pentsatzen dugunok auzoan. Badakit subjektiboa dela sentimendu hori, baina zer pentsatua eman behar lioke edonori horrek bakarrik, auzotarrek horrelako harrotasunez sentitzeagatik festak, alegia.

Badaramazu urte mordoia Donostian, Muchas Telas oihal-dendarekin...

2015ean ireki genuen Hondarribia kalean, eta oso gustura gabiltza. Hainbat arlo jorratzen ditugu oihalgintzan: oihalak saltzeaz gain, blusekin egiten dugu lan izugarri (Santa Krutz jaiekin hasi eta Egiako Porrontxoak bitarte), etxeetako barndiseinatzaileekin eta dekoratzaileekin elkarlanean aritzen gara... Aparte, zerbitzu gehigarriak antolatzen ditugu urtean barrena, dendari erantsita daukagun tailerrean: besteak beste, helduei zein haurrei joskintza ikastaroak.

Joskintzarako joera gurera etorri-ta dago berriro ere...

Halaxe da. Iraganean nolabaiteko belaualdien arteko mozketak gertatu zen. Izan ere, garai bateko jostun gehienek ez zioten transmititu ondorengoei, eta ez arrazoi faltagatik, oso ogibide sakrifikatua baita. Kontua da gizarte joerak joan eta etorri egiten direla maiz, eta horrela, emakume gazte ugari heldu diote azken boladan. Eboluzio hori bizkortu egin du pandemiak. Ez lehengo mentalitatearekin noski, ogibidearen ikuspegitik alegia, baizik eta denbora-pasagisa.

Jendea ohartuta dago joskintzak barruan daramagun izpiritu sortzailea pizten duela, eta, gainera, terapeutikoa dela guztiz.



Urnietan, izenen artean, Argi da erabiliena. Eta, arrazen artean, nagusi da Ingeles Settera. Argazkian, Urnietako Argi. IRATI ROSCO

Argi eta Lur, txakurren izen ohikoenak

Nork bere izenik gustukoena ipintzen dio maskotari, etxera ekartzen duenean. Txakurrei dagokionez, zein da joera? Zeintzuk dira Andoainen zein Urnietan gehien errepikatzen diren izenak eta arrazak?

Alba Cabrera Jauregi ESKUALDEA
EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorra du erantzuna. Izen laburren aldeko hautua egiten dute txakur-jabeek, batez ere, eta, Andoaingo zein Urnietako kasuan, euskarazko deiturak erabiltzen dira nagusiki, baita naturako elementuei estuki lotutakoak ere.

Orotara, 2.193 txakur daude erregistratuta Andoainen eta, Urnietan, berriz, 1.356 txakur. Hala, bada, lehen begi-kolpean nabarmentzen den izenik... "Argi" da bi herrietan gehien entzuten

den txakur-izena, eta, modu berean, bat egiten du "Lur" izenak ere, bi kasuetan bigarren postuan kokatzen baita, hamarreko errenkadaren sailkapenean. Jarraian, hurrenkera aldatu egiten den arren, bat egiten dute zenbait izenek bi zerrendetan, hain zuzen ere: "Bat", "Thor", "Lagun", "Txiki", "Sua" eta "Kira". Halaber, Andoaingo kasuan, "Beltza" eta "Luna" izenak oso gogoko dituzte bizilagunek eta, urnietarrei erreparatuz gero, "Mendi" eta "Txuri" izenek ere arrakasta handia dute.

TXAKURREN IZEN OHIKOENAK Kopurua eta izena, herriz herri

ANDOAIN		URNIETA	
52	Argi	36	Argi
40	Lur	27	Lur
39	Luna	25	Lagun
27	Sua	23	Txuri
26	Kira	17	Bat
22	Txiki	15	Thor
21	Bat	15	Txiki
20	Thor	15	Sua
19	Beltza	13	Mendi
19	Lagun	13	Kira

*Iturria:
EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorra.

Arraza ezagunenak, gurean

Andoaingo zein Urnietako berdeeguneetara eta parkeetara gerturatuta, begien bistakoa da bertan bizi diren txakurren arraza aniztasuna. Nolanahi ere, ez da kasualitatea bi herrietan hamar arraza populatuena ia berberak izatea.

EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorren datu-basera jo du Aiurrik testuingurua ezagutzeko eta Andoaingo nahiz Urnietako hamar arraza populatuena zeintzuk diren jakiteko.

Txakur ehiztariak

Ingeles setterra da, datuei erreparatuta, inolako zalantzarik gabe, txakur-arrazarik populatuena, bi herrietan. Ehiza-jardunarekin zuzenki harremanetan den txakurra da, beren usaimen zorrotzagatik eta harrapakinen miaketarako duten eraginkortasunagatik. Era berean, goiko postuetan kokatzen da ere jarduera berdinerako erabili ohi den Spaniel bretaniarra. Hari horri tira eginez, bi herrietan, oro har, gehienbat, jendeak konpainiarako animalia gisa izan arren txakurak, ehizak ere pisu handia du: Andoainen, txakurren % 29 erabiltzen da ehizarako eta, Urnietan, berriz, txakurren % 31.

Energia handiko maskotak

Bestalde, mendiz inguratutako ingurune malkartsuan kokatzen dira Urnieta eta Andoain. Hortaz, baliteke estuki lotuta egotea hori bi kasuetan bizi diren artzain-txakurren kopuru handiari: Border Collie delakoa, euskalduna, alemaniarra, belgikarra... Horieta asko mendiarekin harremandutako aisialdi-jardueretarako izan ohi dituzte jabeek, bai eta, kasu batzuetan, artzaintzarako ere.

Etxekoen aldeko hautua

Arraza autoktonoek ere indar handia dute bi herrien kasuan, Euskal artzain-txakurra kokatzen baita bi herrietako hamar txakur-arraza populatuena artean. Era berean, ezin ukatu atzerriko jatorria duten arrazen arrakasta.

Tamaina txikikoek moldaeraztasuna

Tamaina handiko txakurrez gain, oso gustuko ditu jendeak tamaina txikiko txakurak, izan ere, Yorkshire Terrier eta Bitxon Maltatarra bezalakoek presentziak iradokitzen du, nolabait, handia dela bizitoki txikietan (hala nola apartamentuak) ondo egokitzen diren txakurren eskaria.

ANDOAIN

304	Ingeles Settera
123	Border Collie
116	Spaniel Bretaniarra
98	Yorkshire Terrier
86	Euskal Artzain-Txakurra
75	Artzain-Txakur Alemana
66	Bitxon Maltatarra
60	Sabueso Espanol
50	Arratoi Txakur Andaluziarra
38	Artzain-Txakur Belgikiarra

URNIETA

248	Ingeles Settera
68	Spaniel Bretaniarra
65	Artzain-Txakur Alemana
52	Border Collie
45	Euskal Artzain-Txakurra
41	Yorkshire Terrier
38	Bitxon Maltatarra
32	Arratoi Txakur Andaluziarra
31	Artzain-Txakur Belgikiarra
25	Mastin Espainiarra

*Iturria:
EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorra.

Datu-kazetaritza



EITBk eta Tokikom tokiko komunikabideen sareak sinatutako lankidetzakordioaren emaitza da Saretzen. Egitasmoaren helburua da datu kazetaritza elkarrekin lantzea.

Hastear da Frantziako Tourra

Vingegaard-en sasoi puntuak baldintzatuko du erabat Tourra: Pogacar ikusgarri arituzen Giroan, eta hasieratik hautsi nahiko du, baina Vingegaard-ek lehia bizirik mantendu nahiko du azken eguneko erlojupekorara arte. Kontakizuna, nola ez, Aiurri.eus gunean

Andoni Urbistondo URNIETA

Kartak mahai gainean daude. Edo ez. Larunbatean hasiko den Tourreko etapak aspaldi zehatz ziren. Oilarrek hilabeteak izan dituzte Tourra ahalik eta ondoen prestatzeko, baina proba hasi bezperan gaude, eta hainbat galderak erantzunik gabe segitzen dute. Erantzun zehatzik gabe, zuzen mintzatuz gero. Tourra irabazteko hautagai nagusienaren sasoi puntuaz informazio zehatzik ez baitago.

Jonas Vingegaard Euskal Herriko Itzulian jausi zen, Kurtzeta mendatean. Erorikoa larria izan zen. Neumotorax larria jasan zuen, besteak beste, eta hiru hilabete geroago ez du beste probarik korritu. Tignes-en, Alpeetan izan da prestatzen azken astetan, baina hainbat zalek grabatutako bideoak baino ez daude, eta minutu bateko grabazioek ez dute arrasto handirik ematen. Bere taldeak, Vismak, Tourreko zortzikoan sartu du, eta talde indartsuarekin inguratu danimarkarra, baina Vingegaard-en sasoi puntuak zein den dakiena, aberats. Pogacarrek ere jakingo luke gustura, baina espioitza zerbitzu on-onen faltan, errepidea bakarrik erabil dezake denok nahi dugun informazioa jasotzeko.

Bina berdinduta daude Vingegaard eta Pogacar, eta berdinketa noren alde desorekatuko den dago jokoan etzitik aurrera. Itxuraz, Pogacarren alde dago, esloveniarrak ikaragarri ibili baita Tourraren atariko lehiaketa guztietan. Giroan batez ere, aurkari guztiak hankapean ibiliz. Nahikoa izango ote da? Bistakoa da Pogacar fin dagoela, iaz baino hobeto, orduan hark jasan baitzuten erorketa baten albo kalteak. Vingegaard onenak bakarrik egin diezairoke aurre Pogacar onenari, eta galdera mundu guz-



Pogacar, iazko Tourrean, Urnieta Idiazabal kalean barrena. AIURRI

tiak egin dezake: bere onenetik gertu al da Vingegaard?

Lehen etapan ikusiko da. Erraiak irakiten izango dituelako esloveniarrak. Tourra hirugarrenez irabazi eta azken bi urteetako mendekua hartzeko; lehen etapak borrokarako bidea irekitzen duelako. 3.600 metroko desnibel metatua Florentzia eta Rimini artean, eta zazpi mendate bidean: hirugarren mailako lau eta bigarren mailako beste hiru. Hanka zuztarrak nola dauden jakiteko test ezin hobea. Italian jokatu du den bigarren etapak ere zeresana emango du, klasiko baten itxura baitu, muino bihurritz josia. Bereziki interesgarria azken kilometroetan bitan igoko den San Luca gaina; bi kilometro eskasekoa, baina %10.6ko batez bestekoa duena. Azken paseratik helmugara 12 kilometro bakarrik daude.

Asteburu potentia da lehenengo, Tourra lasaixeago hasi zalea baita. Turingo esprintaren ostean azkazalak dardarka jarriko zaizkie askori berriro uztailearen 2ko etaparekin, Alpeetako bihotzean. Sestrieres eta Montgenevre aldapa etzanak dira, baita Galibier

ere Lautaret leporaino. Hortik gorako 10 kilometroak bihurriak dira, eta gainetik pasa eta jaitziera azkar baten ostean bukatuko da etapa, Valloire herrixkan. Akatsak, flakiak, debekatuak daude, edo egon beharko lukete, baina UAE taldeak eta Pogacarek ezin horiek agerrarazteko determinazio sendoa dute. Erne errepide bazterrei, Galibier mendateko parajeak elurtuta baitaude zeharo, eta jaitziera ezusteko gerta daitezke.

Trantsizio etapa pare bat etorriko dira gero, eta lehen ostira-lean, Tourreko lehen erlojupekoa: 25 kilometro ditu, eta kasko bat bide erdian. Bakarkako lehen test serioa izango da. Lehen atsedeen egunaren bezperan, sterrato edo lurbideko etapa. 14 zati, eta 32 kilometro, denera, Troyes aldean. Gorabehera txiki batzuk badira bidean, eta triskantza handia izan liteke eguraldiaren baitan. Bustia bada, erne, hautsi egingo baita tropela erabat.

Bigarren asteko ekuatorean Erdialdeko Mendialdean barneratuko da Tourra, Le Lioran gaineko bukaerarekin. Puy Mary Pas de Peyrol ezaguna igoko da helmugatik gertu, eta etapak

4.350 metroko desnibel metatua dauka. Eskualde hartan beroak lodi kolpatzen du uztaile betean, eta bakarren batek azkazalak ere gal ditzake, etapa bizia bada. Pirinioetara bidean, bi etapa lasai osatuko dira, eta Euskal Herriatik gertu bi etapa polit. Lehenengoan Tourmalet erregea, Hourquette d'Ancizan eta Pla d'Adet igoko dira, bukaera azken aldapa horretan. Ez da sekulako mendiko etapa, oroimenean iltzatuta geratzen den horietakoa, baina Tourmalet tarteen egonda, zuhur izatea onena.

Gogortasun handia azken astean

Pirinioetako bigarren etapak eta azken asteko ia guztiak mugarri izan daitezke Tourreko garailea erabakitzeko bidean. Pirinioak agurtzeko 4.800 metroko desnibel metatua duen etapa osatuko dute. Menua, latza: Peyresourde, Mente, Portet d'Aspet, Col d'Agnes eta Plateau de Beille tenteak, bata bestearen atzetik kateatuta. 200 kilometroko etapa da, gainera, Tourreko gogorrenetakoa ezbaierik gabe.

Bigarren atsedeen eguna eta gero, Nimes hirira iristen dena izango da lasaitasun apur batekin hartu ahal izango den azkena. Tourreko azken rush-a beldurgarria izango delako. Asteazkenean, Alpeen atarian, Superdevoluy eski estazioan amaituko da etapa, hiru mendate azken 40 kilometrotan. Alpeetako sarrera 180 kilometroko etapa gorabeheratsurekin egingo da, Gap-en hasi eta Barcelonnette-en bukatu. Jendea justu samar joango da ordurako, eta aurretik, eta ondoren, etapa gogorrek daudenez, ezustekoak gertatzeko osagai guztiak ditu azken osteguneko saioak.

Tourra, dena den, azken hiru egunetan erabakiko da, inolako zalantzarik gabe. Mugaraino eramango ditu ziklistak Embrun-Isola 2000 etapak. 4.400 metroko desnibel metatua, eta horietako erdia mendate bakarrean: La Bonette-Restefonds, 2.802 metroko mendatetzarra, eta aspaldi Europar asfaltatua dagoen mendate garaienaren eztabaidan murgildua. Bonette 23 kilometro da luze, eta %6.9ko batez bestekoa du; 12 kilometro oso 2.000 metrotik gora, horrek eragin dezakeen nekearekin. Aurrez, gainera, Col de Vars igoko dute, beste bi milako bat, eta bukatzeko, Isola: 16 kilometro %7.1eko maldarekin.

Hau ere 2.000 metroko mugan. Ikaragarria.

Indarraren gestioaz, bukaerara indartsu iristeaz mintzatu gara kronika hasieran, Isola triptiko baten lehen atala baino ez da izango. Larunbatean, Tourra bukatu bezperan, beste mendate ratio oparo bat: Niza-Col de la Couillole. 130 kilometro eskas, baina 4.600 metroko desnibel metatua. Bidean bigarren mailako Braus, eta lehen mailako Turini ezaguna, Colmiane eta Couillole (15.7 km., %7.1eko maldak). Eta azkena, eta akaso denetan erabakigarriena: Nizako erlojupekoa. 33.7 kilometro eta La Turbie eta Col d'Eze mendate ezagunak tartean. 650 metroko desnibel metatua, zeharo zuku-tuta izango diren hanka zuztarrak are gehiago zuku-tuta. Diferentzia handiak egon litezke bakar-kako lanean, eta egun horretarako balaren bat gordetzea komeni. Ez harritu, gainera, etapa horrek aurreko mugimenduak blokeatzen baditu.

Pogacar, Vingegaard eta kito

Inork ez du txakur txikirik ematen Pogacar-Vingegaard bikotea ez den norbaiten alde. Hain dira nagusi, irits ezin, ez dela izenik ikusten bi mamu horiei aurre egiteko. Izatekotan, baina asko arriskatuz, Primoz Roglic izan daiteke bakarretakoa. Bere onenaren ere, baina, Borako esloveniarrak Pogacar herrikidea eta Vingegaard baino eskailera pare bat beherago dagoela dirudi. Buruz burukoan jai duenez, ezusteko erasoekin, urrunetik mugituta topa dezake zirrikituren bat Roglic-ek, baina zeregin horretan taldeen sendotasuna sartzen da jokoan, eta UAE-k eta Vismak eramango dituzten zortzikoak errepasatuta, garaiezinak dirudite erabat. Bora taldeko zortzikoak ere ez da herrera, dena den, Vlasov eta Hindley txirrindulari apartak baitira.

UAE taldearen zortzikoak beldurra ematen du, dardarizoak eragin: Joao Almeida, Juan Ayuso, Adam Yates, Pavel Sivakov, Marc Soler, Nils Politt, Tim Wellens eta noski, Tadej Pogacar. Nork irabazi, horiei? Vismak, balantzan, Vingegaard-i laguntzeko zaldi on askoak jarriko ditu: Van Aert, Jorgenson, Kuss, Kelderman, Benoot, Tratnik... Nahikoak izango ote dira? Erantzuna, hurrengo egun eta asteetan.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 27

URNIETA Osoko bilkura

Ohiko osoko bilkura.
19:00, Pleno aretoa.

ANDOAIN Osoko bilkura

Ohiko osoko bilkura.
19:00, Pleno aretoa.

ANDOAIN Bertso-saioa

Bertso saioa: Miren Artetxe, Jon Mendiluze, Xabat eta Joanes Illarregi, Maialen Akizu eta Eli Pagola. Gai-jartzailea: Xabier Ariznabarreta.
19:00, Berrozpeko kapera.

OSTIRALA 28

ANDOAIN Erakusketa

Maddi Zumalabe Irastorza artista, uztailaren 5a bitarte.
Bastero, erakusketa gela.

ANDOAIN Jaiak

Kandida eta bere Txikitxuei ongietorria.
19:00, Kaletxiki.

ANDOAIN Merkataritza

Udalak sustatu dituen bonoak erosteko kanpaina martxan dago.
Azken eguna: Ekainak 30.

URNIETA Lehiaketa

Sanmielak 24 jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Saria: 500 euro. Jatorrizko lanak Bertan bulegoan aurkeztu behar dira.
Oinarriak: Urnieta.eus.
Azken eguna: Ekainak 28.



Kantazaun taldea Zaldundegin, Santa Ageda bezperan. AIURRI

URNIETA Kantazaunen irteera

Kalez kale kantuan ariko da herriko taldea, hileko azken ostiraletan duten usadioari jarraituz.
Ekainak 28, ostirala. 19:00, San Juan plaza.

LARUNBATA 29

ANDOAIN, URNIETA Tourra

Ekainaren 29an hasi eta uztailaren 21a bitarte, Tourraren kontakizuna Andoni Urbistondoren eskutik.
Kontakizuna: Aiurri.eus.

IGANDEA 30

URNIETA Parte-hartze prozesua

16 urtetik gorakoek aurkez ditzakete proposamenak. Erabakitakoa 2025eko aurrekontuan txertatuko da.
Azken eguna: Ekainak 30.

ANDOAIN Kirol jarduerak


2024-25 ikasturteko Gorputz eta kirol jardueren eskaintza indarrean dago. Izen-ematea ixtear da.
Azken eguna: Ekainak 30.

OSTIRALA 5

URNIETA Ongi Etorri Baserrira

Otazu, Adarrazpi eta Eulara bisitaldi-gidatuak. Gipuzkoako eta Bizkaiko baserriak ezagutzeko aukera dago. Izen-ematea uztailaren 3an amaituko da. Informazioa: ongietorribaserrira.com.
Bastero, erakusketa gela.

UDA ZINEMA KALEAN




ANDOAIN

GOIKOPLAZA

Super Mario Bros: La película
Osteguna, 4.
19:00.
*Euria eginez gero, Goikoplazan izango da.

Datozen filmak:

Momiak
(euskaraz).
Osteguna, 11.
19:00.
¡Vaya vacaciones!
Osteguna, 18.
19:00.



SINOPSISIA

Super Mario Bros: La película

Zuzendaria: Aaron Horvath, Michael Jelenic. **Gidoia:** Matthew Fogel. **Herrialdea:** AEB (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Marrazki Bizidunak, abenturak. **Iraupena:** 92 m. **Ordua:** 19:00. **Eguna:** Uztailak 4, osteguna. **Tokia:** Goikoplaza.

"Super Mario Bros: La película", uztailaren 4an, Goikoplazan

Lurpeko matxura batean lanean ari diren bitartean, Brooklyngo iturginak, Mario eta bere anaia Luigi, hodi misteriotsu batetik bidaiatzen ari dira mundu magiko berri batera. Baina anaiak banatzen direnean, Mariok misio epiko bat egin

beharko du Luigi aurkitzeko. Bertako Toad txanpionaren laguntzaz eta Champiñon Erresumako gudari buruzagiaren, Peach printzesaren, borroka nozio gutxi batzuekin, Mariok bere barnean duen botere guztia aurkituko du.

JAM SESSION
Ekainak 28 ostirala
19:30tan
San Juan Plazan
(euriarekin Plazido Mujikan)

Ekarri zure instrumentua eta animatu zaitetz abestera!

FRANTZIAKO
TOURRA

AIURRI.EUS | @aiurri

2024/6/29 – 2024/7/21

**KRONIKA, EGUNERO
ETAPA AMAITU ORDUKO**

ANDONI URBISTONDO



KALETXIKIKO JAIK

EKAINAK 27

OSTEGUNA

19:00 Bertso jaialdia, kaperan: Miren Artetxe, Jon Mendiluze, Xabat eta Joanes Illarregi, Maialen Akizu eta Eli Pagola. Gai-jartzailea: Xabier Ariznabarreta.

20:15 Txosna eta pintxo-potea.

EKAINAK 28

OSTIRALA

19:00 Kandida eta bere Txikitxuei ongietorria. Goikoplazatik jaitsiera Gora Kaletxiki txarangarekin, ikurriñak Ontza elkartearen ipini eta zapi berde-beltza jarri ondoren, jaiari hasiera emango zaie.

20:30 Bokatafari herrikoia.

21:00 Bakarriketak: Manu Badenes, Toni Cruz eta Agustin Jimenez.

23:00-02:00 Gaur8 taldearen eskutik. Segidan, 31 urteren ondoren, Iratxo taldearen itzulera.

EKAINAK 29

LARUNBATA

09:00 San Pedro saria plater tiroketa, Oizartungo Arkale zelaian. Izen ematea: 09:00etatik 10:00etara.

09:00-11:00 Arrantza txapelketa Olazar parkean. 15 urte bitartekoentzat.

10:30 Kaletxikiko XVII. Eskupilota topaketa. Goikoplazan. Amaitzeko, denok txokotara, haur, gazte eta helduak.

12:00 Kaletxikiko XXIX. Sagardo Txapelketa. Parte-hartzaileak: Mizpiradi, Gaztañaga, Eula, Lizeaga, Irigoien, Akarregi, Itsasburu, Urdaira eta Izeta sagardotegiak.

12:00 Haur parkea: Txirrista, jauziak, aquariuma eta pedaleatzeko eremua.

16:30 Haur parkea.

18:30 V. Haur danborrada.

19:00 Kaletxikiko XXXVII. danborrada nagusia. Entseguak ekainaren 25, 26a eta 27an.

21:30 Ontza elkartearen afaria.

23:30-01:30 Dantzaldia Nemux DJen eskutik. Tangoak, pasodoblea eta rantxerak.

01:30-03:00 Nemux DJ.

EKAINAK 30

IGANDEA

10:00 Diana. Olagain Udal Txistulari Elkartearen eskutik.

11:00 Meza Berrozpeko kaperan. Auzoko hildakoen alde.

12:00 Soka Dantza Urki Dantza Taldearekin eta nahi duten bizilagun guztiarekin. Pintxoak eta ardo txikitoak dastatzeko aukera izango dira.

13:00 Gora Kaletxiki txarangaren kontzertua.

14:15 XXXII. Kaletxikitarren bazkaria. Menua: otarraixkak, entsalada, txapiroak eta postrea, eta akaita eta kopa. Helduek 25 euro eta haurrek 10 euro. Salgai, Patxi harategian. Epea: ekainaren 25a.

17:00 Bingo herrikoia eta jokoak.

17:30 Gora Kaletxiki txarangaren kalejira.

19:00 Sardin jatea Alaiki taldeak girotuta. Dantzaldian barrena, Kandida eta Txikitxuek zapi berde-beltza gordeko dute, eta jaiari amaiera emango zaie.

Udako ordutegia Andoaingo hiru elizatan

Uztailaren 1etik irailaren bukaera arte, ordutegi berriak:

- San Martin parrokoa: larunbata, 18:30; igandea 11:30.
- Sorabillako San Martin eliza: igandea, 11:30.
- Santa Krutz eliza: igandea, 10:00.
- Hiletak:
- Aldaketa larunbatetan: San Martin parrokoa, 18:30.

"Ipuingiro" ekimena Andoainen, datozen egunotan

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Liburutegiak elkarrekin antolatuta. Lehen saioa:

- Uztailak 2, asteartea.
- 18:30, Etxeberrieta plaza.
- Amaia Elizagoien eta Irati Celestino: "Ameli eta xirrikituaren jostunak" ipuin kontalari musikatua.
- Adina: 3 urtetik gora.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Nahia Barandiaran Gonzalez
Ekainaren 23an 10 urte bete zenituen. Urte askotarako!! Muxu handia, aitona Peio eta amona Espe.



ANDOAIN
Enaitz Agirre
15 urte beteko ditu uztailaren 2an. Zorionak "txabal mayor", eta urte askuan etxeko denentzako partetik. Maite zaitugu "pittin"!

GIPUZKOA

Ekin.

Gipuzkoa oparagoa izateko.


Zaindu.

Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituen.

Bizi.

Ondo eta duin bizi daitez.

GIPUZKOA
Foru Aldundia



***Mendira,
hondartzara,
festara...***

***Uda honetan ere zurekin
eramango gaituzu***

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*